

BIZKAIERAREN II ASTEA

Joan zan urtean lez, aurten be, Bizkaieraren astea antolatu eta egin da Loraillaren 6'tik 10'ra eta igaz lez, oso jende gitxi bildu giñan bertan. Zer jazoten da? Nun dagoz Bizkaieraren zeintzailleak eta zaleak? Nun Euskerazaleko ikasleak?

Euskerazaleko arduradunak antolatzaillak izan dirala kontuan artzean eta an bertan Bizkaieraz ikasten dagozala jakitean, arrituta geratu nintzan lenengo egunean ain jende gitxi ikusteaz.

Lenengo eguneko itzaldian, Puxana'tar Pedro izan zan izlaria eta bere oitura dan lez, Bizkaiko aditza bere agotik, atsegiñez entzun genduan, euskera argi ta garbi baten.

Urrengo bi egunetan zoritzarrez, ezin neban itzaldietara joan baña 9'an bai eta egun aretan, Olazar'tar Martinek eskeiñi euskun itzaldia. Bere gaia oso interresgarri eta jakingarria zan eta niri asko atsegin jatan baña gauza bat esan bear dautsot Martin jaunari: Euskaldunbarriak be, bagengozala itzaldian eta bera-

ren itzak ostera ez zirala guretzat erri-eraz baño, orregaitik eta abotsa zabaltzeko tresnarik ez egoalako, gaiari buruz, geiago jakin guraz geratu giñan orrelako itzaldietarako aukera gitxi daukagulako.

Beste orrenbeste jazo jakun Berrojalbiz'tar Juligaz, bere gaia ezagutzen ebenen lagun artean egoala irudian, baña guretzat be garrantzi aundia eukan eta gauza ta zeatzasun asko jakin eta ulertu barik, geratu giñan. Orrez gañera, nire errian (Sestaon) antolatu eta zabaldu zan ikastolari buruz, ez eban ezer aitatu, oso zeatza ez da baña 1967 edo 68garrenean zala uste dot. "Eusko-lorak" dantza taldeko lekuan asi ziran ipur-pekoakaz, lurrean eta neguan otz-ikaraz.

Itziar Manterola Sestaoko lenengo andereñoa izan zala badakit ziur eta berarengandik nire lenengo euskerazko itzak ikasi nebazala bebai, eta beste gauza bat, andereño obeagorik ez dodala barriro ikusi.

Ortik aparte, bi izlari oneei gauza bat eskatuko neuskioe: Zer aldizkarian euren itzaldi edo laurpen bat barriro esan dagiela, izan daiteke?

PALMI'K

EMONGO DEUTSUT

Ez deutsut emon, maitetxu,
nire biotzaren giltzik;
—txoriak maite, abia—
ez dau nai gizonen itzik.
Ez neutsun emon, maitetxu,
eskubide ein aundia;
txori-kantak maite ditut,
maiteago goi-bizia.

Emongo deutsut, emongo,
noizbait ni naizen guztia,
batera lortutekotan
betikotasun zuria.
Ez deutsut emon, maitetxu,
biotz neurearen giltza.
Giltz orrek euki dauka-ta
zerutiko urre-bitsa.

Emongo deutsut, emongo,
maite-laztan eta mosu
biontzat gora-bidea
zeuk eskintzen ba'deustazu.

E. ERKIAGA



LAUOINKAN

Zidarrezkoak orkatzak,
urre-ariz txalma ertzak,
itzaldun, arro oa.

Ugelik gabeko griña
dok ire zaldi ariña,
ago-burdia bakoa.

Nora ain ibil zoroak?
Sena dandarrez daroak.
Ez aiz urrun elduko.

Alper lauoinka azkarra
galdu dok eta izarra.
Laster aiz zaldipeko.

A. BIDAGUREN